

# BALEIKE



200. ZENBAKIA. EURO BAT  
2011ko EKAINA

[www.baleike.com](http://www.baleike.com)

**200.**  
**aldizkaria**

## ALDAKETAREN ARRAUNKADAK







# Galdona

industriaegia

**denda:**

Mendaro marinela, 1  
tel.: 943 143 346

**biltegia:**

Jose M<sup>a</sup> Korta Industrigunea  
Pab. A6.1, 2-5 mod.  
tel.: 943 861 117  
fax: 943 861 330

industriarako nahiz etxerako  
era guztietako material, tresna, pieza eta osagarriak

## ERROTA



## OPIL OKINDEGIA

*era guztietako tarta  
eta pastelak*

**LABEA:**

Santixo auzoa TEL: 943 86 00 00

Erribera, 2 TEL: 943 14 30 01

Juan Belmonte, 5 TEL: 943 86 03 00

Basadi, 4 TEL: 943 14 32 21

P. Etxezarreta, 42 TEL: 943 86 25 28

Alai, 8 TEL: 943 86 25 60

# BALEIKE 200

12  
baleike +

## ALDAKETAREN ARRAUNKADAK

AZALA a. rubio aprea



### HERRI ALDIZKARIA

Foronda Kultur Etxea

Odieta, 2

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkartea

e-maila: elkarte@baleike.com

Administrazio batzordea: Xabier Azkue, Gurenda Serrano

Erredakzio taldea: Xabier Aizpurua, Imanol Azkue,

Abelin Linazisoro, Ainara Lozano Lasa,

Aitor Manterola, Juan Luis Romatet,

Miriam Romatet, Peio Romatet, Arnaitz Rubio, Jon

Urbietala eta Gorka Zabaleta

Diseinua eta maketazioa: Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa: Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

gurenda@baleike.com

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

800 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

4

hitz-tantak

ANTONIO IMAZ

7

bertso xorta

JON MAIA

8

iritzia

HARRIAK, BIHOTZAK

||

gizartea

AL-ANON

20

erreportajea

ONTZIGINTZA

31

baleike.com

UDAL HAUTESKUNDEAK

33

agenda

EKAINA-UZTAILA

34

ipuina

ENTZUN

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zumaiko Udala





# “Zumaiarren alde piztuko dugu kandela Santiagon”

Antonio, Pakita eta Kattalin. Senarra, emaztea eta astoa. Erromesaldian hirurak. Donejakue bidean. Maiatzaren 14an abiatu ziren. Gerora, jakin dugu Kattalin gaixotu egin zaiela, eta baserritar bati utzi behar izan diotela, pena handiz. Elkarrizketa joan bezperan egin da.

TESTUA eta ARGAZKIAK: AITOR MANTEROLA

## Nola sortu zitzaizuen bidaia egiteko asmoa?

Hementxe, mahaian gaudela Keperin eta bere lagun bat, ari ginen hizketan egin behar nuela Donejakue bidea erretiroa hartu ondoren. Hauek esan zidaten astoa eramateko, oinez ez joateko: “Hementxe daukak eta!”. Horrela atera zen.

## Harrezkero, astoan bidaia egin duen besteren baten berri izan al duzu?

Bai. Ikusi nuen ezagun bat, hura ere kamioi gAsidaria izana. Orain dela bi urte egin zuen, eta esan zidan astoarekin joateak alderdi onak eta alderdi txarrak dituela, oraintxe ondo eta hurrengoan ez hain ondo.

## Astoa eramateko proposamena egin zizunarekin traturik egin al duzu?

Ez, ez, batere ez. Astoarekin nahi dudana egiteko esaten



dit, baina ez dakit nik asko fidatzen den [barrezka].

## Lehendik ibilitakoa al zara astoekin?

Bai. Baserrian jaioa naiz, eta hamazazpi urte arte bertan egon nintzen lanean. Bizi guztia eman dut animaliekin.

## Astoa laguna ala etsaia izango da?

Bolada batzuetan laguna

izango da, eta besteetan kontrarioa. Erreka dagoen lekuetan, zubia zeharkatzeko garaian, astoak atzerantz egiten du beti ura ikustean. Orduan, hori ez gertatzeko begiak estaltzeko trapua daramagu astoari begietan jartzeko.

## Nola izena du astoak?

Kattalin.

## Kattalin ez aurrera, ez atzera gelditzeko beldurrez al zoazte?

Ez zait iruditzen. Atzera ez dakit, baina aurrera joan beharko du, batera ez bada, bestera.

## Ibili al zarete Kattalinekin?

Bai, baina ez asko. Pixka bat ibili gara. Berez, astoa animalia noblea da, eta ez dira entrenatzen, proban jarduteko ez bada. Gure mutil garaian belarra ekartzeko erabiltzen

“Astoa bolada batzuetan laguna izango da, eta besteetan kontrarioa”

genituen, eta zintzo portatzen ziren.

## Beti hemen egon al da Kattalin?

Ez, ekarritakoa da. Harrezkero, hemen egon izan da beti, eta jolasean ibiltzen da.

## Orain dauka erronka.

Bai horixe! Baina baita guk ere.

## Zenbat kiloko zama eramane behar?



**Antonio Imaz**

**Jaioteguna:** 1949ko  
apirilaren 20n

**Jaioterrria:** Itziar

**Lanbidea:** Kamioi gidaria  
izan zen, eta orain erretiroa  
hartuta dago. **Aurretik**  
baserrian ibili zen

Hamabi kilo pisatzen du motxila bakoitzak, eta bi eraman behar ditugu. Astoa lagatzen ez dute uzten ostatu guztien kanpoaldean, eta hori gertatzen zaigunerako, guk lo egiteko kanpin-denda hartu dugu, bi kilo eta erdikoa. Estutasunen batean erabiliko dugu kanpin-denda. Egunean egunekoa egingo dugu.

#### **Zenbat denbora daramazue bidaia prestatzen?**

Bi urte. Berez joan zen urtean ginen joatekoak, baina ezin izan genuen. Uztokotan egon ginen, baina animatu ginen berriz, eta hemen gaude.

#### **Emaztea zuk konbentzitu duzu ala berak zu?**

Nik konbentzitu behar izan dut, hasieran ez zuen joan nahi eta.

#### **Astoaren kontura denetik**

#### **entzunda egongo zara.**

Bai, denekoak aditzen ditut. Batek astoa harrapatuko digutela, besteak ihes egingo digula....denetarik, bai.

#### **Kezka berezirik bai?**

Gure oinak. Eta astoarenak ere bai. Lagunak esan dit bereak ez zuela arazorik izan. Eguraldia ere kontuan hartzekoa da.

#### **Zergatik Donejakue bidea?**

Europan barrena ibili naiz kamioiarekin 37 urtez, eta ez dut inoiz istripurik izan, ezta bat ere. Ikusten nituen erromesak, eta neure buruari agindu nion hau: "Laneko bizitza ondo bukatzen badiat, Santiagora joango nauk erromes". Hortik dator gure bidaiarena.

#### **Zenbat egunetan egiteko asmoa?**

Momentuz, hilabeterako hartu dugu. Kalkulatuta

“Europan barrena ibili naiz kamioiarekin 37 urtez, eta ez dut inoiz istripurik izan”

daukagu egunero 26-27 kilometro egin behar direla 26 egunean, baina ez dira kontatzen herri handietan egin beharreko bideak. Hortaz, hilabetera joango gara, gutxi asko.

#### **Santiagora iritsi eta zer?**

Astoarekin Obradoiro plazan egongo gara. Gero, Gorka semeak kandela bat eman digu hango katedralean pizteko, zumaia

denen alde. Han egun pare bat egin, eta buelta.

#### **Eta Kattalin non utzi behar duzue bi egun horietan?**

Badaude lekuak Santiagotik gertu astoa lagatzeko. Zalditegi bat bada, esaterako. Eta jendeak ere hartu izan ditu, lekua dutenek.

#### **Buelta nola egin behar?**

Astoa kamioian edo karroan ekarriko dugu.

#### **Bukatu eta gero, ospatu behar al duzue?**

Bai, seguruenik gure koadrillarekin, bideko pasadizoak eta kontatzeko.

#### **Eta ez baduzue bukatzen?**

Buelta etxera! Zorte txarra.



**Arrain eta mariskoak**

**Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak**

Zuloaga plaza, 1  
tel. 943 862 309



Alai auzategia 8  
20750 Zumala (Gipuzkoa)

Diseinu zerbitzuak  
tel.: 943 14 31 22

Kopiak eta materiala  
tel/Faxa: 943 14 31 20

a3 kopia eta diseinu zerbitzuak  
a3zumala@terra.es



**L I B R U D E N D A**

**AIZPURUA**

Aita-Mari auzategia, 17  
tel. 943 861 569

**ALBERDI**  
dekorazioa

- Eskaiola
- Pladur-a

696 726188  
943 143261

**ALBERDI**  
Dj July

Musika onena eskontzetan, kinton ospakizunetan eta era guztietako festetan

600 982 810  
july\_alberdi144@hotmail.com




**ALGORRI TABERNA**

ERRIBERA KALEA 2 - ZUMAIA



Ignacio Zuloaga enparantza  
tel. 943 861 157  
anasetxeokozapiak@telefonica.net

ILEAPAINDEGIA

*D'Ana*

Kantauri plaza, 6. behea  
tel. 943 117 406



**Ardantzabide**  
ALTZARIAK-AROZTEGIA

www.ardantzabide.com

Erakusketa: Hego kalea, 4-5  
Denda: Txornin Agirre, 4  
Tel.: 943 862 532

Aroztegia: Santiago, 40  
Tel.: 943 861 631

**ARGISUN**  
ENERGIA-KONPONBIDEAK

- Berokuntza sistemak
- Giroteza
- Iturgintza
- Energi berriztagarriak
- Eraginkortasun energetikoa

Basadi auzategia 5  
tel. 943 861 995

www.argisun.com  
info@argisun.com



OKINDEGIA  
Artisano



Napuzki 2 - tel. 943 861 921  
ZUMAIA

OGI-EDER

**ARRUTI**

Baltasar Etxabe 2/9  
Zumala 943016429



**AUTOS ZUMAIA**

Urola plaza, 3-5  
tel. 943 861 485



Finis, French, English, Español, Catalonian, Italian, Basque, Catalan, Finnois, Francés, Inglés, Español, Francés, Catalán, Inglés, Basc, Catalán

**Bakun**  
ITZULPEN ETA ARGITALPEN ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25  
20749 Arroa

tel./faxa 943 148 306  
bakun@euskalnet.net

**Basodi**  
albaitaritza

Albaitaria  
Itzi Garmendia

Basadi, 7, behea - tel. 943 143 310  
velen@basodi.albaitaritza.com  
www.basodi.albaitaritza.com

Gótzeez: 11-13 / Arribakoez: 16-19:30 / Astelotzen goizean eta larunbelean 8:30a  
Lamiak/Elbarako: 606 728 707 Ebezez ebeko zerbitzua



**BASUSTA**  
ERRETEGIA



Patallia Etxezarreta, 25  
tel. 943 862 073

**BATELA**



**ARRANDEGIA**

Izustarri, 2-4  
Tel. 943 860 750

**Braky's**  
Okindegia Kafeategia

Izoga kalea, 2  
20750 Zumala (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 57 07 79  
Móvil: 649 967 289





# Domingo Kanpaina hauteskundetan Zumaian

Doinua: "Mando baten gainian Domingo Kanpaina"



1.

Hau, hori eta hura  
Zumaia, España  
legalak, ilegalak  
malkoak, txanpaina  
mando baten gainian  
bestia alajaina  
Herritik pasatu da  
**Domingo Kanpaina**

2.

Hara **largak** emanda  
zitara **hurbildu**  
**Pepe** izeneko bat  
zaio maitemindu  
Domingok **Hamaika bat**  
"pse" ta "eaj" egin du  
**ea alternatibarik**  
bazen galdegin du

3.

Alkatetzaren edo  
**mandoaren** gaian  
**domingok** bozka egunez  
hartu du su mahaian  
esan du: jakina dut  
bozkaren garaian  
**Zumaia** legez kanpo  
zaudela Zumaian!

4.

Pasa da **Kanpaina** ta  
Pasa da **Domingo**  
bozkak irten ondoren  
bakar batek bingo  
nahiz kukurruku oilar  
gehienek egingo  
arrautzak ez du denek  
nahi beste gorringo

5.

Beste lau urte behar  
dira alajaina  
berriz pasatu dadin  
**igandez kanpaina**  
azpian dijuanak  
**Mandoa** nahi baina  
**Gainekua** ere bada  
**azpikua** aina,  
herriak emango du  
hartuan ordaina...





# Harriak, bihotzak

Imanol Azkue

Asteartean ikusi nuen Puntako haitzetik (Talaipetik) aurrera, Parolmuturreko behealdean, galtzada-harriak kendu eta porlana bota dutela lurrean. Berehala sartu zitzaidan nahigabea barruan: zergatik kendu dituzte? Zerk justifikatzen du kentzea? Nork erabaki du eta zer asmorekin? Gaizki baldin bazeuden, zergatik ez dituzte konpondu? Berehala lotu nituen “obra” hau eta egun pare bat lehenago Santiago aldean, Jardinerotxearen atzean, zabalgunearen atzealdean urrutitik ikusi nuen harri-pila.

Asteartean bertan (maiatzak 24), zumaia.net webgune-tik, Udaletxean galdetu nuen zer egiteko asmoa zeukaten harriekin. Oso hitz egokiekin, erantzun zidaten galdetuko zutela; oraindik ez didate erantzun.

Norbaitek, auskalo zer irizpideren arabera, erabaki du galtzada-harri horiek ez direla egokiak, ez daudela ondo, itsusiak direla, eta kendu beharra dagoela. Amorrua sentitzen dut, eta ezintasuna. Noiz babestuko dugu, behingogatik, hain gurea dena? Noiz zerrendatuko ditugu eta izendatuko ditugu galdu nahi ez ditugun gure ondasunak?

Rafael del Pilar lagunaren liburu bat ari naiz euskarara itzultzen aspaldian, eta hango hitz batzuez akordatu naiz, ezin egokiagoak direlakoan hemen adierazi nahi dudanerako:

*“Hasta hace pocos años, Zumaia conservaba un rico legado histórico-patrimonial en materia de adoquinados urbanos, localizados en Erribera kalea, y otras calles o zonas del casco viejo.*

**Zenbat olatuk igurtzi, zenbat oinek zapaldu, zenbat eurik busti, zenbat joan-etorriren lekuko... Paroleko galtzada-harriez ari naiz. Harriek bihotza daukate; gure bihotzak, berriz, harri-koskorrak dira.**

*Pero un buen día, un “ilustre dreamy” con gran visión de futuro, promovió desde el Ayuntamiento su particular cruzada de liberación contra todo lo viejo, introduciendo unilateralmente en “su” cortijo zumaiaarra lo más vulgar, pijo e impresentable del mercado seudovanguardista europeo en materia de complementos urbanísticos.*

Egunen batean, Zumaia-ko museo batean galtzada-harri bat jarriko dute bitrina baten barruan erakusgai

*De manera tan burda, utilizando la antidemocrática fórmula del plumazo administrativo, “costumbre” de gran arraigo en el Ayuntamiento de Zumaia, comenzó el ocaso o destrucción masiva de una de nuestras más zumaiaarras señas de identidad: los magníficos adoquinados de época, perfectamente conservados en nuestras calles y plazas.*

*Dicho sea de paso, empedrado envidia de otras poblaciones dotadas de una ética conservacionista radicalmente diferente a la nuestra. En consecuencia, nuestros viejos adoquines de “siempre” fueron sustituidos por ridículas y descafeinadas “ga-*





DANIEL ALVAREZ

*lletas-figurín”, perdiendo Zumaia con este truke otro nexo de unión con nuestro pasado histórico más reciente”.* (Rafael del Pilar, ARRANGOLETA, 1945-1951, MEMORIAS DE UN BARRIO, oraindik argitaratu gabe).

Liburu berean Rafaelek dioenez, galtzada-harri horiek 1896koak dira, Parolmuturra egin zenekoak. 105 urtean egon dira hor, eta norbaitek, auskalo zer irizpiderekin, erabaki du porlana hobea dela

San Telmo, Amaiaiko plaza, Erribera kalea, Goiko kalea... Kale askoren lurra zegoen galtzada-harri ederrez estalia, eta atera ere, harraldetik ateratzen zuten, Deba eta Zumaia arteko kostaldeko harrobietatik.

Zumaiako argazki zaharretan ere erraza da galtzada-harri horien irudiak aurkitzea. Hauek, adibidez, Javier Carballo lagunak eman pasa zizkidan, eta Daniel Alvarez argazkilariarenak dira.

Ez al dugu inoiz ikasiko? Beti bezala, esango digute harriak besterik ez direla, itsusiak, traketsak, baldarrak, eta

politago, erosoago, erabilgarriago geratuko dela berrituz gero; kendu zaharra, jarri berria; eta guk sinetsi eta ontzat emango dugu ustez kirurgia estetikoaren ebakuntza, fede onez, baina barrenetik gure-gurea den zerbait eraziko digute, bizitzeko ezinbestekoa ez dena baina gurea, eta

konturatu gabe, berriz ere, gure barrua husten jarraituko dute, pixkanaka baina etenik gabe. Kanpotik itxura eder izango gara, baina barrutik gero eta hutsago, bihotzik gabe geratzen ari garelako. Izanik gabe.

Egunen batean, Zumaia-ko museo batean galtzada-harri bat jarriko dute bitrina baten barruan erakusgai, eta gidari batek esango die bisitariei “Honelako harriak zeuden lehen Zumaia-ko kaleetan”; askok “Ooooooooo!!!” egingo dute, harrituta; guri,

berriz, nostalgiak garai bateko oroitzapenak ekarriko dizkigu gure barren hutsetara, eta ondo fijatuz gero, ikusiko dugu nola bitrinaren barruan taup-taup egiten duen galtzada-harriak.



## BEDUA ITURGINTZA S.L

ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMAILEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Industrigunea, 9  
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa  
tel. 943 143 369

## EGOKI



Erloju  
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6  
tel. 943 861 787



Erribera kalea, 6 20750 Zumala tel. 943 143 097  
ekinsi@ekinsl.com www.ekinsl.com

Instalazio elektrikoak  
Telekomunikazioak  
Informatika  
Internet



DIGITAL+



Erribera, 8

tel. 943 861 694



V. Arrate, 3

Tel. 943 860 045



**ERROTA**  
OPIL-OKINDEGIA  
SANTIXO AUZOA, 32  
20750 ZUMAIA  
TEL: 943860000  
943860612  
FAX: 943860977  
erota@erota-okindegia.com

## ERTZ INFORMATIKA

Portatilak  
konpontzeko  
zerbitzu berria

Eskatu aurrekontua  
konpromisorik gabe,  
**DOAN**



Behoko plaza

tel./faxa: 943 143 395

## FARMA ZUMAIA

Parafarmazia • Belar-denda  
Tel. 943 865 323

### PRODUKTUAK

- Urne eta haurrentzat, dietetikoki, kosmetikokiak, hanka eta eskuen zaintzarako...

### ZERBITZU BEREZIAK

- Dieta, Naturapala, Idoklogia, Flores de Bach, Masajeak (Terapeutikoak, Kirolentzako, Lesiozkoak, Etsaren Arretutasen, Buruko minen, Zirkulazio arazoak... kontrakoak), Akupuntura: horietatik eta horietatik gabe

BASADI KALEA, 3 - BEHEA - ZUMAIA

## Galdona



Mendaro marmela, 1 tel. 943 861 117 - 943 143 346  
Juan Belmonte, 15 faxa 943 861 330

## GANBARA

Taberna

Juan Belmonte, 5 tel. 943 861 057



Txomin Agirre kaia

Tel. 943862181



**GAZTE, S.L.**  
ELEKTRIZITATEA

Era gutietako instalazioak etxebizitza, pabiloi eta herriko argietan

Trenbide pasealekua, 5. pabilioia

tel./faxa 943 143 402 mugikorra 610 262 617



**GOIKO TABERNA**

Erribera, 9

tel. 943 861 391

Ikastegi homologatua

**Golden Gate**  
Institute  
hizkuntz eskola



Erribera kalea 1 bis, behea  
tel./faxa 943 865 020  
goldengateinsti@telefonica.net

Gure-Txokoa  
taberna



Upela plaza, 4  
20750 Zumaia  
Tel.: 943 86 09 70

English School  
**Harvest**

...eta udaran Ingalaterrara Ingelesa praktikatzera

San Jose, 11 bis

tel. 943 143 334



# Senideen heldulekua

Al-Anon

Alkoholikoen senideak biltzen dituen elkarte da Al-Anon. Zumaiaiko taldeak 25 urte bete ditu aurten, eta premia du-tenentzat ateak zabalik dituztela gogorazi nahi dute: “Alkoholikoen senideek jakin dezatela elkarte hau dagoela laguntza eskaintzeko”.

“Alkoholismoa gaixotasun bat da, eta hori da ulertu behar den lehen kontua” azpimarratzen dute Al-Anonen. Alkoholikoak bezalaxe, senideek ere gogotik sufritzen dute, eta laguntza behar izaten dute gaixotasunak harremanetan eragiten dituen zauri sakonei aurre egin ahal izateko. “Gure bileretara askotan senideak etortzen dira gaixoarentzat laguntza eske. Eta hori ez da gure zeregina. Gu gauden senideei laguntzeko, gero, unea iristen denean, etxean daukaten gaixoari laguntzeko gai izan daitezten”, azaldu digute.

Mirenek –asmatutako izena da, anonimotasuna gordetzeko– bere esperientzia pertsonala kontatu nahi izan digu, antzeko egoeran egon daitezkeenei lagungarria izan dakiekeelakoan. Hona hemen bere kontakizuna:

“Hasieran, nire senarrak alkoholaren gaixotasuna zuenik ere ez nekien. Neure buruari galdetzen nion zergatik batzuetan zen hain maitagarria eta beste batzuetan berriz, munstro bat. Ez duzu ulertzen zergatik hitz egiten dizun modu txarrean. Nik bakarrik nekien gure etxean arazo handi bat zegoela, giroa zeharo gaiztotuta zegoela. Baina ez nekien zergatik, ez nuelako inoiz senarra zeharo mozkortuta ikusi. Nik bakarrik nekien batzuetan esaten zituen gauzak ez zirela normalak, bere onetik ateratzen zela. Berak esaten zuen erotzen ari zela, ez zekiela zer ari zitzaion gertatzen, eta egunen batean alde egin eta ez genuela gehiago ikusiko. Horrek min handia egiten du.

Beti zaude larritasun horrekin: gaur nola etorriko ote

da? Zer esango ote dit? Beti kezka horrekin zaude. Eta kalera doanean, nora ote doa? Norekin ibiliko ote da? Bere erreakzioen menpe zaude, erabat.

Oso gaizki sentitzen nintzen. Ezin nuen lorik egin, ez nuen jateko gogorik, negar baino ez nuen egiten. Medikarengana joan eta hark pilula batzuk ematen zizkidan, baina berdin segitzen nuen. Egun batean telefono zenbaki

bat eman zidan arte. Ez zidan inolako azalpenik eman eta nora deitzen nuen jakin gabe deitu nuen. Hitzordua jarri genuen, eta horrela ezagutu nuen Al-Anon. Lehen bileran, taldekideak hitz egiten hasi eta niri galderak egiten hasi zirenean, orduan konturatu nintzen etxean geneukan arazoaz.

Autoestimua hondoa jota nuen. Bakarrik sentitzen zara, pentsatzen duzu jendeak ez zaituela maite. Hutsune handia daukazu zure barnean.

Ilusiorik ez daukazu kalera irteteko edo gauzak egiteko. Lotsa sentitzen duzu. Ez zara ausartzen arazoaz inorekin hitz egitera, senideekin ere ez. Hori oso gogorra da.

Harriz betetako motxila batekin iristen gara elkartera, eta lehenengo gauza da pisu hori arintzea, barrena hustea, baka- rrik ez zaudela ikustea eta autoestimua berreskuratzea. Bilereki esker barruan daukazu korapiloa askatzen duzu pixkanaka, eta horrek hobeto sentiarazten zaitu. Gai- xoa gaizki etxeratzen denean nola jokatu behar duzun ere ikasten duzu. Eta horrela gauzak aldatzen doaz. Etxeko giroa hobetu egiten da, eta azkenean lor dezakezu arazoa bideratzea. Nire kasuan, esate baterako, nik egin nuen lehen urratsa Al-

Anonera etorrita. Senarrak ez zuen nahi, baina pixkanaka, ikusi zuenean nire jarrera aldatu egin zela, egun batean laguntza eskatu zidan. Eta orduan hasi zen bera ere Alkoholiko Anonimoetan”.

Harremanetan jartzeko: 650 265 963



Harriz betetako motxila batekin iristen gara elkartera, eta lehenengo gauza da pisu hori arintzea, barrena hustea eta autoestimua berreskuratzea

# “BERE POSIBILITAREAREN GAINETIK IBILI DA KLUBA”

Ekainaren 18an hasiko da 2011ko San Miguel Liga, Bordelen. Bertan izango da Telmo Deun trainerua. Berrikuntzak izango dira aurten traineruaren tostetan. lazko denboraldi amaieran joandako mutilen lekua B ontziko arraunlariak beteko dute. Ez hori bakarrik: Xanti Zabaletak hartuko du Luis Mari Ollasagasti Luxiaren lekukoa entrenatzaile lanetan. Helburua, azken urteetan bezala, mailari eustea.

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET  
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA





Ez da urte erraza izan Zumaiaiko Arraun Elkartearentzat. Azken hiru urteetan egindako zorrek estututa, klubaren etorkizuna ez zen oparoa eta ia zko abuztuan arraun munduan aritutako lagun talde batek hartu zuen elkartearen kudeaketa. Egoerari buelta ematea zen helburua. 2011ko otsailean hauteskunde prozesua jarri zen abian zuzendaritza batzordea aukeratzeko. Hilabeteko epean zerrenda bakarra aurkeztu zen eta martxoaren 25ean egindako batzarrean onartu zuten. Zuzendaritza batzordea honako kide hauek osatzen dute: Luis Mari Goikoetxea *Goiko* (presidentea), Jokin Urkidi (presidenteordea), Luis Unanue (diruzaina), Aitor Manterola (idazkaria), Luis Osa (bokala) eta Anjel Etxaniz eta Antonio Amilibia (ordezkoak). Agintaldia bi urtekoa da.

Entrenatzaile berria aurkitzea izan da batzordearen lehen lana eta egoera ekonomikoari konponbidea bilatzea izango da bigarrena. Horri guztiari buruz hitz egin dugu zuzendaritza batzordeko kide Jokin Urkidi, Luis Osa eta Anjel Etxanizekin.

### Urte hasieratik zuzendaritza taldea du Zumaiaiko Arraun Elkartek. Zer arrazoi izan dira aldatzeko?

Jokin Urkidi: Hainbeste urtetan *Goiko* eta *Luxia* izan dira klubean agintzen; batek uretakoa eramaten zuen eta besteak bulegokoa. Baina azkeneko urteetan igartzen genuen aldaketa behar zela. Kluba asko hazi da. Lehen traineru bakarra zegoen; iaz, berriz hiru, bi mutiletan eta bat neskatan. Horiei gazteak ere gehitu behar zaie. Ikusten genuen ezin genuela lehen bezala segi eta jende bati deika hasi ginen, asko ere lehendik arraunean ibilitakoak.

### 30 urtean zuzendaritza bera izan da klubean. Bizio txar batzuk ere izango zituen.

JU: Askok, eta oraindik ere badira.

Anjel Etxaniz: Normala ere bada, 30 urtean berak [Goikok] kudeatu du-eta kluba. Luxiak eskatzen zionari beti baiezkoa esaten zion. Gauzak nola egiten zituen? Ez dakigu. Zortea izan dugu denbora askoan gauzak ondo atera direlako. Laguntza ekonomikoak bazeuden, baina horiek



ere kale egin zutenean, elkartea ito egin zen zulo ekonomiko handia eginda.

### Beraz, egoera ekonomikoa izan da gakoa.

JU: Orain zazpi urte ere kristoren zorra omen zegoen. Luis Unanue lanera sartu zen klubean eta orain hiru urte parean egotera heldu zen. Baina hiru urtetik hona berriro ere sekulako zuloa egin da.

### Zorra zenbatekoa da?

AE: 100.000 euro ingurukoa, lehengo 20 milioi pezeta. Zor horiek erlatiboak dira, horren barruan beste bekatu txiki bat dago-eta: arraunlarietako ordaintzea. TKE Ligak ekarri duen itomen bat da. TKEra igo zenean maila oneko arraunlariak ekarri nahi izan ziren, baita etxeokak lotu ere, eta hor hasi ziren dirua eskaintzen. Denboraldiko 3.000 eurokin hasi ziren, 6.000 eurora igo zen eta bi urtean 9.000 eurora heldu ziren. Altuna y Uriak esan zuenean laguntzaren erdia emango zuela, arraunlariak kobratu ezinik geratu ziren.

JU: Iaz 6.000 eurora jaitsi genuen ematen zitzaizen dirua, 9.000 euroko kopuruak emateko adinako babeslerik ez genuelako.

Luis Osa: Gu sartu aurretik enpresa batek hitz eman zuen kluba babestuko zuela. Azkenean atzera egin zuen eta pusketari handi bat ordaindu gabe geratu zen.



Anjel Etxaniz, Jokin Urkidi eta Luis Osa, zuzendaritzako kideak.

JU: Arraunlari bakoitzari 6.000 euro ematen bazaie, 120.000 eurotaz ari gara hitz egiten. Arraunlarietan bakarrik hori. Eta gero beste gastu guztiak daude: sendagilea, ergometroko probak, fitzak...

AE: Aurtengo aurrekontua 120.000 eurokoa da, eta hori mutileri ordaindu gabe. Iazko gastuak batuta egin dugu aurrekontua eta toki guztietatik estutzen saiatzen ari gara: lehen autobusez joaten ziren; orain, berriz, furgonetetan; lehen bi





'platanito' [arraunerako jantziak] ematen ziren; orain, berriz, bakarra.

JU: Zortea izan dugu arraunlariek esan digutelako aurten ez dutela kobratuko.

**Udalak ere 30.000 euroko diru partida bat aurreratu behar izan zuen.**

JU: Klubean dirurik ez zegoen orain bi urteko soldatak ordaintzeko eta kreditu bat eskatu zen Kutxan. 120.000 euroko zor horren zati handi bat itzuli gabeko kreditua da. Kutxarekin arazo batzuk izan genituen eta horregatik eskatu genion Udalarari aurrerapen hori.

AE: Klubak zituen arazoengatik abal emaile batzuk eskatzen zituen. Arazo hori desblokeatzeko aurkitu zen modu hori, eta horrela Udalak 30.000 euro aurreratu zizkigun hurrengo urteetako laguntzetatik.

LO: Abal emaile bakarrik ez, zuzendaritzako eta zuzendaritzatik kanpoko lagun batzuek dirua aurreratu zuten beren poltsikoetatik.

AE: Mutilak arraunean hasi zirenean ez zegoen dirurik eta zerbait erakutsi behar zitzairen.

JU: Iazko abuztuan hasi ginen elkartzen entrenatzailea bilatzeko, Luxiak esan zigun eta ez zuela jarraituko. Baina abuztuan hasi eta aurtengo otsaila arte diru kontuak besterik ez ditugu izan. Astero biltzen ginen eta gai horretatik ez ginen ateratzen. Aurten jasoko dugunarekin eta arraunlarietara ordaintzeari uko eginda, urtea pasatzeko adina daukagu. Helburua parean bukatzea da. Zerbait geratzen bada, mutilei ordaintzen joango gara. AE: Aurtengoa estalita daukagu. Maileguaren hileroko kostua ere sartuta daukagu aurrekontuan. Baina komeni zaigu zertxobait geratzea mutilei ordaintzen jarraitzeko. Lehentasuna horrek izan beharko luke, baina ezinezkoa da.

**Aurten ez dutela kobratuko diozue, baina zaila izango da horrela jarraitzea.**

JU: Aurten kobratu gabe etorri dira. Ikusiko dugu datorren urtean. Arriskua dago ordaintzen ez bazaie beste klub batzuetara joatea. Babesle handi bat etortzen bada saiatuko gara ordaintzen. Bestela, gaur bezala jarraitu beharko dugu.

AE: Debalde etortzeko jarri diguten baldintza bakarra da garantiatzeko entrenatzailea nahi zutela, baita sendagilea ere. Zerbait berria nahi zuten.

*Arraunketa mota desberdina sartu du Zabaletak: arraunkada luzeen ordez, motzak egiten dituzte orain.*



Xanti **ZABALETA**

Entrenatzailea

“Jende gazteak sinesten badu eta gogoia badu, gauza asko lor daitezke”

Orio eta Zumaiaren arteko pikea aspalditik dator. Hala ere, Zumaiako traineruak Orioko entrenatzaileak besterik ez ditu izan azken hiru hamarkadetan. Hori esan eta Xanti Zabaleta barrez hasi da: “Hau da marka, hau!”, dio irribarretsu. 43 urte betetzera doan oriotar honek hartu du Luis Mari Olasagasti Luxiaren lekukoa Telmo Deunen gidaritzapean. Orion, Urdaibain eta urtebetez Zumaiaren arraunen aritua, aurtengoa du estreinaldia entrenatzaile lanetan. “Iaz geldirik egon nintzen eta neguan deitu zidaten Zumaiatik ea ardura hartu nahi nuen. Konbentzitu ninduten eta ilusioarekin etorri naiz”.

Ezaguna du Zumaiako kluba, igoyerako denboraldian Telmo Deunen egin zuen-eta arraun. Urte oso polita bezala gogoratzen du 2005eko hura: “Zumaiako KAE Ligan zegoen, bigarren mailan, eta apustu sendoa egin zuen TKE Ligara igotzeko. Bandera dezente ere irabazi genituen”.

Neguan hasi zen arraunlariekin lanean. “Beterano batzuk badira, baina gehientsuenak gazteak dira eta oso gogotsu daude”. Hasieran 30-32 lagun zituen, baina lanean hasi eta berehala bizpahiruk utzi egin zuten. TKE Ligak kupo bat jarrita duenez (klubek 22 lagun izan ditzakete gehienez, patroiak barne), deskarte batzuk egin beharko ditu. “19 arraunlari eta 2 patroirekin geratuko naiz, ziur aski”. Iaz ez bezala, kanpoan geratzen diren arraunlariek ezingo dute aurten B ontzian arraun egin, Zumaiako Arraun Elkartek ez baitu bigarren ontzirik aterako. “Zuzendaritza neguan beste klub batzuekin hizketan ibili zen bigarren ontzia ateratzeko, baina azkenean ezinezkoa izan da”. TKE Ligan arituko ez diren arraunlariak ez dira, baina, lehorrean geratuko. “Beste klub batzuekin hitz egiten aritu gara eta kanpoan geratu diren mutilak haietara joango dira uda egitera. Pena da urte osoan entrenatzen aritu eta udan, gozatu behar den ulean, ezin lehiatzea. Beste klub batzutan arituko dira arraunean eta itzultzen direnean formazio hori izango dute”.

Xanti ez da bakarrik aritu neguko entrenamenduetako plangintza prestatzen: Manu Gonzalez sendagilea eta Unai Amenabar prestatzaile fisikoaren laguntza izan du. “Beraiekin eta taldeko lana egiten, udako denboraldiko planifikazioa pres-



tatu dugu. Base aerobiko handia egin dugu udaran laguntza hori izateko. Entrenamendu espezifikokoak ere egin ditugu: abiadurako edota erritmoko saioak egin ditugu estropadetako erritmoak lantzeko”.

Arraunketa desberdina du aurtengoa Telmo Deunek. Hortaz ohartu dira traineruaren entrenamenduak jarraitu dituzten zenbait herritar: “Luxiarekin arraunkada luzea egiten zuten, orain motzagoak dira”. Arraunketa pertsonalizatua sartu nahi izan duela dio Zabaletak: “Gaztelaniaz esaten den bezala, ‘cada maestrillo tiene su librillo’. Iazko arraunketa analizatu nuen eta ez nuen gustukoa. Beraz, arraunketa mota hau sartu dut. Ikusiko dugu baliagarria den edo ez”. Arraunlari batzuekin teknika asko landu behar izan duela dio, aurreko arraunketara ohituta zeudelako.

Bordelen hasiko da aurten TKE Liga. Handik aste batzuetara Zumaiari oroitzapen txarrak ekartzen dizkion Galiziako estropadak jokatu dira. “Estropada eremu bereziak dira eta kaleen artean alde handiak izaten dira. Baina denentzat izaten dira bereziak, ez guretzat bakarrik”. Denboraldi hau “zaila”

“Laguntzea, zuzentzea eta arraunlariak formatzea izango da nire lana eta pixkanaka taldea osatzea”





izango dela onartzen du oriotarrak. “Tazko trainerutik 7 edo 8 lagun falta dira. Batzuek, aspertuta, arrauna utzi egin zuten eta beste batzuk beste klub batzuetara joan ziren. B trainerukoekin eta gazteekin osatu dut tripulazioa. Horrek esan nahi du ekarpen tekniko handirik ez dutela. Laguntzea, zuzentzea eta arraunlariak formatzea izango da nire lana eta pixkanaka taldea osatzea”.

Neguan jokaturako ibaien jaitsiera batzuetan maila polita erakutsi du Telmo Deunek. Hala ere, horietatik konklusioak ateratzea oso zaila dela dio entrenatzaileak. “Gauza bat da neguan egiten duzuna eta bestea, oso desberdina, udan egiten dena”.

Iaz jaitsierako kanporaketa edo play offa jokatu zuen Zumaiak. Aurtengo helburua ere mailari eustea izango da. “Ez jaistea da gure helburua. Eta gogorra izango da; iaz baino talde gutxiago dugu (hau kaketxa artean jarri behar da, azken finean emaitzen ematen baitute taldearen balioa) eta are zailagoa izango da. Zezena adarretatik hartu eta aurrera egin beharko dugu”.

Arraun Elkartearen bertan bizitako gorabeherek ere bete-betean harrapatu dute. Arazo ekonomikoak direla medio, arraunlariak ez dute aurten soldatarik jasoko. “Klub apaletan hauxe gertatzen da. Diru sarrerarik ez dagoenean, oso zaila da diruarekin mutilak motibatzea. Horregatik, agian, beste modu batzuk bilatu behar izaten dira mutilak animatzeko. Denboraldi honetan, adibidez, entrenatzaileak aldatu da. Saiatu naiz arraunlari guztiak errespetatzen eta aldagelan giro berezia sortzen, denok errespetatuak senti gaitezten. Talde giroa eta ilusioa sortu behar da. Emaitzak lortzen ari gara eta jendea pixka bat sinesten hasia da. Jende gazteak sinesten badu eta gogoia badu, gauza asko lor daitezke”.

TKE Ligan bertan ere nahikoa kaka nahaste bada azken denboraldietan. 2010eko Kontxako estropadaren ondoren, giroa oraindik gehiago nahastu zen, dopineko salaketak zirela medio. Xanti Zabaletari aurpegia aldatzen zaio gaia ateratzean; ez du gaia gustuko eta agerian uzten du: “Giro nahasia dago eta horrek ez dio onik egiten arraunari. Ulertzen dudana da bi entrenatzailearen arteko auzia dagoela eta pentsatzen dut auzi hori bere lekuan konpondu beharko litzatekeela. Hori konpondu bitartean, arraunaz bakarrik hitz egin dezala jendeak”.

**Esan daiteke kluba bere posibilitatearen gainetik ibili dela.**

JU: Oso gainetik.

**Elkartearen etorkizuna inoiz egon al da arriskuan?**

JU: Udalak 30.000 euro horiek ez balizkigu aurreratu...

LO: Agian trainerurik ez zen izango. Agian gazteekin bakarrik egingo genuen lana. Edo agian hori ere ez.

**Nola hartu zuen Goikok zuek zuzendaritzan sartzea?**

JU: Oraindik ere kostatu egiten zaio zuzendaritza batzorde bat dagoela ikustea.

LO: Batzarrean garbi geratu zen erabakia juntako kide guztion artean hartu behar direla. Norbaitek proposatu zuen presidentea aldatzea klubaren irudia aldatzeko, baina Goikok beste inork hartu nahi ez zituen ardurak hartu zituen bere gain.

JU: Gutako bat batzarrean presidente atera izan balitz, Goiko gaiztoa bezala aterako zen, eta nik han esan nuen eta hemen berritri diot: Goikok ez luke mereziko horrela ateratzea. Gauza batzuk ez ditu ondo egin, egia da, baina lan asko egin du eta oraindik ere ordu pila bat sartzen du. Klubak hartu duen bolumenarekin orain batzordean gaudenak ez gara denera iristen, eta lehen dena berak eramaten zuen. Eta aurpegia eman du dirua behar izan denean. Pobreei ere dirua eskatuko zien Goikok klubaren alde!

**Zuei entzunda, badirudi TKE Ligan aritzea ez dela ekonomikoki bideragarria klub txiki batentzat.**

AE: Arraunlariak ordaintzen ez bazaie, gastuak KAEn korritu edo TKEEn korritu antzerakoa dira. TKEEn Galiziarra joan behar da eta KAEn Asturias edo Kantabriara. TKEEn banatzen diren sariak ere asko jaitsi dira. Lehen Castro batean 6.000 euro jasotzen zituen irabazleak; orain 3.000 euro inguru dira. Diru hori, gainera, ez da klubarentzat, arraunlariarentzat baizik.

**TKEEn egoteagatik ez al da sarrera finkorik izaten?**

AE: Denboraldi amaieran zerbait geratzen bada, bai. Hori zen hasierako helburua.

JU: Jasotzen dugun kopuru finko bakarra Diputazioak Kirologitiki ematen dizkigun 50.000 euroak dira, Gipuzkoaren izena eramateagatik.

AE: 150.000 euro daude guztira Gipuzkoako klubaren artean banatzeko. Iaz Zarautz jaitsi egin zen eta ez zen inor igo. Ondorioz, pastel zatia handiagoa da.

LO: Azken urteetan ez da dirurik jarri TKEEn korritzeko, babesle handiak zituelako. Aurten, baina, Caja Madridek utzi egin du eta iaz geratu zen dirua, 5.000 euro, ez dugu jaso. Liga oso garestia da eta agian aurten ordaindu egin beharko dugu TKEEn aritzeko.

**Baldintza horietan merezi al du TKEEn aritzeak?**

AE: Arraunlariak ordaindu gabe goian mantentzeko gai bagara, bai. Babesleak lortzeko era errazagoa da, estropada

**API**  
**Ibaitzain**  
 inmobiliaria

Ricardo Azkue  
 API 399

Txomin Agirre 4, behea  
 tel. 943 862 651  
 faxa 943862748

rijazcue@euskalnet.net

*Idoia*  
 Moda dena  
 Androginitan espezializatariak

Julio Beobide, 2 behea Tel. 943 86 03 01  
 idoiazunmaia@gmail.com

**Shinza**  
 Zumaia



**ilarzi**

Alai auzategia, 2  
 Tel. 943 24 50 20



**IRIONDO JATETXEA**

Txikiardi  
 auzoa  
 Tel. 943861390  
 675715017



Gure espezialitatea:  
 arrainak eta baragia parrillan

**IRUITZ**

Ileapaindegi Mistoa

San Telmo, 12 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)  
 Tel.: 943 860 760



**ITSASKI**  
 SUPERMERKATUA

Urumea kalea z.g. tel. 943 143 058

**Itzurun, S.L.**  
 Aroztegia

Ateak, leihoak, tarimak, armairu enpotatuak...

Itzurun Zuhazbidea, 2 behea  
 Tel. / Fax: 943 86 15 65



**ORRAZTEGI ZUMAI**

943 862 083



**JUARISTI**  
 jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran  
 Eguneko menua  
 Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10 tel. 943 861 853

**KABI** Patxia Etxezarrote 15  
 943 117 427

TABERNA



**Kaithermik S.L.**

**Arotzeria metalikoa**  
 Aluminiozko leihoak ZTHrekin,  
 PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943860320



**kalari**

Upela plaza, 8  
 tel. 943 862 517



**Kresala**  
 Taberna

Julio beobide 3, tel. 943 019 869



**kuttun**  
 lentzeria

erribera kalea tel. 943117936



**Larraitz** ile-apaindegi  
 leon emakumezkoentzat

Basadi auzategia 5 behea  
 Zumaia  
 tel.: 943 14 30 41



**malaun**







## ◀ GAZTETASUNA

*lazko denboraldiaren ondoren, Telmo Deuneko arraunlari batzuek Zumaia uzteko erabakia hartu zuten. Batzuk arrauna utzi zuten; beste batzu, aldiz, beste klubetara joan ziren. Ondorioz, B ontziko mutilak sartu ditu Xanti Zabaleta entrenatzaileak traineruan.*

guztiak telebistan ematen dituzte-eta. Aldiz, behean ez zaituzte ikusten. Etxekoekin lan egin behar dela diote. Gu horren aldekoak gara. Baina goian etxekoekin egoteko aukera badago, zer da hobe?

### **Babesleak beharrezkoak dira kirol honetan. Nola dago kluba alde horretatik?**

AE: Altuna y Uriak urtebeterako sinatu du. Gero txikiak inguratu ditugu: Salegi jatetxea, Agerre instalakuntza elektrikoak, Mediolanum bankua...

JU: Arraunean dirua jartzen baduzu arrauna gustatzen zaizulako da. Zure irudia ikusten da, baina benefizio handirik ez da ateratzen. Aurten hortik jo dugu: babesle indartsua lortzea oso zaila denez, txikietara jo dugu.

AE: Babesle baino, gehiago dira bazkideak. Urteko kopuru bat jartzen dute eta hurrengorako ere hor ditugu.

### **Hartutako lehen erabakietako bat entrenatzaile berria kontratatzea izan zen. Xanti Zabaleta aukeratu zenuten.**

LO: Bi aldeentzat erronka izan da, bai beretzat, baita guretzat ere.

JU: 14-15 entrenatzaileekin hitz egin dugu. Garbi geneukan dirurik ez genuela eta izen pixka bat zuen entrenatzailea ekarri behar genuela.

AE: Hasierako apustua Anjel Larrañaga ekartzea zen. Tolo-sako gazteekin ibili da eta Astilleron bigarren entrenatzaile zegoen. Dezente hurreratu ginen eta baiezkoa ere eman zigun, baina baldintza batekin: Astillerotik deitzen bazioten, han geratuko zela. Eta hala gertatu zen.

JU: Oso ezaguna ez izatea nahi genuen, baina bai klub asko ikusi dituen, eta Zumaia diru gutxiren truke etorriko zena. Joseba Fernandez ere etorri zen, baina bera eskaini zelako.

AE: Castron kakaren pare utzi zuten, mutilak joan zitzaizkion eta Zumaia entrenatzaile bila zebilela jakin zuenean bera eskaini zen. Berriro hasteko modu bat bezala ikusten zuen. Zumaia etorri zen, baina norbaitek albistea Interneten jarri zuen eta azkenean Castron geratu zen.

LO: Joseba Fernandez Zumaia etortzea Mouriño Realera joatearen parekoa izango litzateke.

JU: Xantik bizitza osoa egin du arraunean eta guk nahi genuen perfila zuen. Garbi daukagu aurten izan diren bajekin ezin diogula Xantiri asko exijitu. TKEEn mantentzen bagara, sekulako denboraldia egin dugun seinale izango da.

AE: Hauentzat mantentzea Kontxan irabaztearen parekoa izango da.

### **Bulego lanetan gauzak aldatu behar zirela argi zenuten. Uretan ere bai?**

JU: Zerbait aldatu behar zela ikusten genuen. Luxiak 30 urte egin ditu eta kexa minimorik ez dut; ondo eraman du. Baina Luxiatik kanpo beste mundu bat dago.

AE: Zerbaitek huts egiten zuela nabari zen. Beste herri bate-tik Zumaia norbait arraunera etortzen zenean, klubean bat gehiago zen; erdi mailan egoten zen. Baina Zumaia beste nonbaitera joaten zenean, arraunlari hori titularra bihurtzen zen, zalantzarik gabe. Gaizka Gastiain izan zen lehena: Zumaian bat gehiago zen; Oriora joan zen, titularra egin zen eta Kontxan bigarren postua lortu zuen.

### **Traineru denboraldia hastera doan honetan, nola ikusten duzu Arraun Elkartearen etorkizuna?**

JU: Ondo, ilusioarekin. Iaz babesleak laguntza erdira jaitsi zuen eta ez dakigu TKE Ligan jarraituko dugun, baina guk trainerua aterako dugu.

AE: Jaisten bagara Kirolgiko laguntza galduko dugu. Oraingo erronka gazteekin lan egitea da. Hori da bultzatu nahi duguna.

LO: Kanpoko jende pila bat daukagu: Azpeitikoak, Itziar-koak, Endoiakoak... denak bailarakoak. Baina Zumaia-koak apenas.

JU: Denak harrobikoak dira, baina kanpokoak. Jubeniletan bi dira zumaia-arrak eta seniorretan gutxi batzuk daude. Erronka hori izango da, gazteak inguratzea. Zumaia-koak ez badira, ingurukoak. Eta dirua badugu TKEEn izango gara, bestela...

AE: Argi daukaguna da gu ez garela San Pedro batera edo beste klub batera joango arraunlariak ekartzera, ezin dugu-eta. ■



TESTUA: GORKA ZABALETA  
ARGAZKIAK: BALENCIAGA, ZUMAIAKO FOTOTEKA ETA ZIIZ

# ONTZIGINTZARI LOTUTAKO HERRIA





## ◀ LANGILEAK

Balenciagako langileak, enpresaren atarian.

Ontzigtzaren lehenengo urrezko garaia 1540tik aurrera izan zen —adibidez, 1574an, Zumaian, 23 itsasontzi eraiki ziren—, eta horren erantzule nagusiak izan ziren Amerikekin hasitako harreman komertzialak. Orduan, Zumaia izan zen Gipuzkoako ontzigtzile nagusietako bat, Pasaiarekin eta Oria inguruarekin batera. Batez ere ontzi txiki-ertainak eraikitzen ziren, arrantzarako, kabotajerako eta burdina eta burdinoletako gaiak garraiatzeko.

Zumaian baziren hamar ontziola, gutxienez. Horieta-ko batzuk ibaian gora zeuden, Urolaren ibaiertzean: Oikia, Eskazabel, Gorostiaga, Bedua eta Goiburua. Beste batzuk, berriz, portuan bertan zeuden, urertzean: Astillero Nagusia, Erribera, Arrangoleta, Santiago eta Zubiaurre. Aldi baterako erabiltzen ziren ontziak eraikitzeko leku horiek, ez ziren azpiegitura iraunkorrak.

1680tik aurrera eta hurrengo bi mendeetan, Zumaian ia erabat desagertu egin zen ontzigtzintza. XIX. mendearen amaieran, ordea, zenbait zirkunstantziaren ondorioz, berpiztu egin zen. Garai hartan, portua “bigarren mailako interes orokorreko” izendatu eta azpiegiturak hobetu egin zituzten, eta besteak beste arrazoi horiengatik, merkataritzak gora egin zuen eta ontzigtzintza indartu egin zen.

XIX. mende hartan, artean, ontziolen instalazioak oso soilak ziren, mailak eta aldi baterako arranplak baino ez, materiala gordetzeko estalperen batekin. Batez ere Ondartxo inguruan zeuden. Ontziolak familiarrak ziren, eta garai hartan egurrezko itsasontziak egiten zituzten, bela bidez zebiltzanak. Baina laster etorri ziren aurrerapen teknikoak.

### Lehenengo ontziola modernoak

XX. mendearen hasieran, Zumaiaiko ontzigtzaren historian etapa berri bat hasi zen. Izan ere, orduan sortu ziren ontziola modernoak, itsasontziak konpontzeko eta eraikitzeko leku iraunkorrekin. Horieta-ko batzuk izan ziren, besteak beste, ondorengoak: Pedro Alberdi, Astilleros del Urola —Eraso y Cía.rena—, Arrizabalaga y Olasagasti, Querejeta e Hijos, Alberdi y Cía. eta Galarraga y Urbieta.

1910ean, Pedro Alberdiren oinordekoek lehenengo lurrunontzia egin zuten, Eraso y Cía.rentzat: *Urda* (9,04 tonakoa). Orduan hasi ziren galdaren eta lurrun makinak bidez zebiltzan itsasontziak egiten, eta horrek ekarriko zuen, gero, itsasorako eta industriarako motor dieselak egingo dituen sektore garrantzitsua, besteak beste, Yeregui y Cía., Yeregui Hermanos, Carmelo Unanue edo Guascor enpresekin.

I. Mundu Gerran (1914-1918) Espainia neutrala izan zela baliatuta, ontzigtzintzan lan egiteko zenbait enpresa sortu ziren —XX. mendean zehar 14 baino gehiago—. Horrela, 1919ko maiatzaren 4an, Balenciaga y Compañía enpresa osatu zen, gaur egungo Balenciaga ontziolaren lehen urratsa.

Baina seguru asko kapitalaren beharrak zirela kausa, sozietatea desegin egin zen handik gutxira, eta ia-ia aldi berean beste bat erregistratu zen, S.A. Balenciaga izenekoa, 1921eko otsailaren 11n. Ondorengoak ageri dira bazkide sortzaile: Esteban Larrañaga Mendizabal, Jose Ajuria Tauste, Teodoro Martinez Arrate eta Victoriano Celaya Lecue.

Badira agiriak egiaztatzen dutenak Zumaian ontziak egiten zirela herribildua sortu zen urte berean, 1347an. Denboraren joanean gorabehera handiak izan dira, baina ontzigtzintza beti estu-estu erlazionatuta egon da Zumaiaren garapen ekonomikoarekin. Balenciaga da gaur egun historia horren gordetzaillea. 90 urteko ibilbidearekin, Zumaiaiko enpresarik zaharrena da.

### Zumaiako lehenengo altzairuzko itsasontzia

Lanean hasteko, S.A. Balenciagak lehen Yutera Arbillaga egon zen lekua hartu zuen errentan. Arbillagarenean zakuak eta sareak egiten zituzten, eta Menendez Pelayo kalearen eta Galvez Cañero zuhaiztiaren artean (gaur egungo Amaia plaza) zegoen.

Lehen katalogo komertzialean jasotzen denez, 1920ko hamarkadako lehen urteetan sozietatearen lan nagusia hau xe izan zen: “makineria egitea eta konpontzea, eta burdina eta brontzea galdatzea, eta espezialitate nagusiak itsasorako lurrin makinak, galdarak eta horien osagaiak dira”. Beraz, lehen urteetan ez ziren aritu berariaz itsasontziak eraikitzen, baina handik gutxira eman zuten pauso hori. Eman, gainera, berrikuntza garrantzitsu batekin eman zuten: lehenengo altzairuzko itsasontziekin.

I. Mundu Gerraren ondoren, ontziolak batez ere egurrez-

ko arrantza ontziak egiten aritu ziren, baina Balenciagak beste bide bat urratu zuen, 1929an lehenengo altzairuzko itsasontzia egin zuenean; ontziak *Julito* zuen izena, eta Pasaiako Julio Cigandak agindutakoa zen. Apustua, ordea, ez zen hor geratu; izan ere, urte berean S.A. Balenciagak eta Carmelo Unanuek La Constructora Metálica S.L. osatu zuten, txapa metalikozko ontziak, garraiorako gabarrak eta beste instalazio metalikoak egiteko. Arrangoletan ezarri ziren 1931n, eta 1933 arte txapazko zazpi itsasontzi eraiki zituzten. 1940. urtera arte, Balenciagak txapazko 14 itsasontzi eraiki zituen, 30 eta 230 tona artekoak.

### Krisia eta gerra

Altzairuzko itsasontzien esperientzia berritzailea izan zen, baina, 1929ko krisi ekonomikoaren ondotik, 1933tik aurrera itsasontzien eskaera izugarri jaitsi zen. Gerraren eragina



### ◀ GALDARAK

Urda izenekoa izan zen Zumaiako lehen lurrinontzia, 1910ean. Eskuineko irudian, Beduako ontziola.

### ▶ JULITO

Balenciagak egin zuen txapazko lehen ontzia Zumaiako, Julito izenekoa. Eskuinean, Balenciagaren lehen garaietako fundizioa.





ontzigitzara ere iritsi zen eta hurrengo urteetan hondamena etorri zen. 1937 eta 1939 artean egurrezko sei arrantza ontzi baino ez ziren egin, 282 tona guztira. Ez zegoen eskaerarik, eta jarduera geratu egin zen.

Zailtasun ekonomikoak gutxi ez eta errepresio politikoa ere etorri zen, eta batez ere sozietatearen zuzendaritzan eragin zuen, bereziki gerentearengan, Jose Ajuriarengan (Aberasturi, Araba, 1882Zumaia, 1962).

Lanerako gaitasun handikoa izanik, Ajuriak ondo asmatu zuen berezko mediku lanak –titularra zen Zumaian 1916tik– eta sozietatearen gerentzia bateratzen, bazkide fundatzaile izanik, gainera. Horrez gain, hainbat enpresa ekimen ere jarri zituen abian beste enpresa batzuekin lankidetzan (besteak beste, Yeregui y Cia., Carmelo Unanue eta Arrizabalaga y Olasagastirekin). Francoren diktaduraren lehen urteetan, ordea, errepresio politikoa sufritu behar izan zuen; horrela,

kartzelaratu egin zuten, mediku postua kendu egin zioten (Zumaiaiko Udaleko beste 10 langileri bezala) eta erbestera tu egin zuten. Atzerritik bueltan, gerente lanpostuan jarraitu zuen, harik eta 1959an, osasun arazoak zirela medio, erretiratu zen arte. 1962an hil zen.

### Zuloagarekin gatazka

Balenciagak 1937. urtean lortu zuen baimena Urolaren ibaiertzean, Zubiaundiaren ondoan, itsasontziak eraikitzeko, baina 1940tik aurrera hasi zen hobekuntzak egin nahian, orduan erabaki baitzuen ontzioletako azpiegitura handitzea, instalazioak pixkanaka zabalduta.

1940ko maiatzaren 15ean baimena jaso zuen makineriarako pabiloi bat eraikitzeko, Arrizabalaga y Olasagasti ontziolaren alboan, eta urte bereko azaroan beste eskaera bat egin zuen beste hainbat lan egiteko: burdinazko itsasontziak



### ◀ XIX. MENDEA

XIX. mendearen hasieran hasi zen pixkanaka ontzigitza berpizten. Garai hartakoa da argazkia.

Pedro **ETXABE**  
ZIIZeko kidea

“Arrangoleta leku garrantzitsua izan zen ontzigintzarako”



Artxibategiak, hemerrotekak, fototekak, norbanakoen bildumak, aurrez egindako lanak, internet... Iturri guztietara jo dute ZIIZeko kideek XX. mendeko ontzigintzaren historia osatzeko. Informazio asko bildu dute, tartean bitxikeriak ere bai. Kontatzeko eskatu diogu ZIIZeko kide Pedro Etxaberi.

“Guk XX. mendea ikertu dugu, ontzigintza berpiztu zen garaia. Kontuan hartu berrehun urtetik gora ontzigintza ia desagertuta egon zela Zumaian. 1880tik aurrera hasten dira datu batzuk azaltzen. Adibidez, Arrangoleta inguruan Pedro Alberdi ontziola zegoen 1883an, eta 1899ko dokumentazioan Querejeta ageri da jada. 1902an Eraso sortu zen Ondartxon, Itzurungo aldaparen kontrako izkinan. Irureta-Esnal (1906), Alberdi y Cía. (1910) eta Domingo Aranbarri (1911) ontziolak ere mende hasierakoak dira. Baina benetako loraldia 1918-1919 urteetan gertatu zen, I. Mundu Gerratearen amaierarekin”.

Dena den, mende hasierako lehen ontziola haiek txikiak ziren, orohar, eta normalean oso denbora gutxi irauten zuten. “Hasieran, Ondartxon jarri ziren. Arrangoleta aldean ere bai, batik bat Udala hezegunea lehortzen hasi zenean herria zabaltzeko. Berez etxeak eraikitzea zen Udalaren lehen asmoa, baina interes handirik ez zegoenez garai haietan, ontziolak aprobetxatu zuten azpiegiturak han jartzeko. Arrangoleta leku garrantzitsua izan zen ontzigintzarako”.

Arrangoletako lurak Udalarenak ziren eta alokatu egiten zituen normalean. Saldu ere bai kasuren batean. “Bitxikeria bezala, 1918an Bilboko enpresa batek 11.000 metro koadro alokatu zituen hormigoizko barkuak egiteko. Urtebete lehenago, 1917an, hormigoizko lehen gabarrak egin zituen Bilbon, eta negozioari segida eman nahi zion Zumaian, baina ekimena bertan behera gelditu zen”.

Ontzigintzarako erabili den beste leku bat gaur egun Balenciagak hartzen duen inguru izan da, Zubiaundiaren ondoan. “Aurretik ere izan zen han ontziolarik –Pedro Alberdi 1899an hara aldatu zen–, baina 1918ko loraldiaren ondoren lehenak lekuz aldatzen Alberdi y Cía. izan zen, ondoren Arriabalaga y Olasagasti –gaur egun Barinaga dagoen lekuan–, eta azkenik Balenciaga”.

1930eko hamarkada gogorra izan zen oso. Aurrena, 1929ko mundu mailako krisiaren ondorioak pairatu zituz-

ten, eta ondoren Gerra Zibila. “Gerra bukatu ondoren, 1941ean hasi zen berriro pixkanaka ontzigintza indarra hartzen, baina ordurako hiru ziren ontziola nagusiak: Balenciaga, Arriabalaga y Olasagasti eta Beduakoa. Arriabalaga y Olasagasti 1971n itxi zuten eta Beduakoa 1974an. Handik aurrera, Balenciagak baino ez du jarraitu, eta dagoeneko 90 urteko ibilbidea osatu du”.

#### Ramontxu handia

“Mende hasierako itsasontzi gehienak egurrezkoak ziren, nahikoa txikiak, 30-50 tona inguruak. Belarekin ibiltzen ziren. Lurrunezko makinekin hasi zirenean ere, potentzia gutxiak zirenez, larri ibiltzen ziren itsasoa zakartzen zenean. Horregatik, nahikoa ohikoak izaten ziren hondoratzeak. Arrantzarako ziren asko, baina kargarako ere egiten ziren. Bada, testuinguru horretan, 1918an albiste izan zen Querejetak eraiki zuen *Ramontxu* itsasontzia. Izan ere, ordura arte Zumaian inoiz egindako barkurik handiena zen –eta Gipuzkoako handienetakoa–, 500 tonakoa. Argazkian ikus daitekeenez, ikusmin handia piztu zuen. Haren ondoren beste bat are handiagoa egin zuen Querejetak, *Jose Mari* izenekoa, 750 tonakoa”.

#### Tauro eta idiak

“1944ko otsailaren 20an, Inauteri egunez, Santiagoko hondartzan hondoa jota gelditu zen Querejetak egin zuen azken itsasontzia. *Tauro* zuen izena. Elurra ari zuen eta ibaia urez gainezka zetorren. Barratik sartzen ari zirela, erriorearen indarrari ezin aurre egin eta pixkanaka Santiago aldera joan zen itsasontzia, hondoa jo zuen arte. Burdinazko lingotez kargatuta zetorren, eta idi parearen laguntzarekin gurdian atera behar izan zuten karga guztia. Patroia lekeitiar bat zen, Txakartegi, aurreko urtera arte Zumaian praktiko ibilitakoa, hain zuzen ere”.

#### Nati-ren erretratu eta dike lehorra

“Aurkikuntza polita izan da kasu hau. Dena hasi zen erretratu batetik. *Nati* izeneko barku baten botadura ikusten da, gaur egun anbulatorio zaharra dagoen pare horretan, gutxi gorabehera. Baina guk ez genekien hor ontziolarik egon zenik



ere. Han eta hemen lortutako datuekin joan gara informazioa osatzen, eta jakin dugu Ajuria, Yeregi y Cía. zela ontziolaren izena, eta dike lehor bat zuela. Berez, lursail horren jabea Jose Agustin Arbillaga zen, eta 1918an baimena eskatu zion Udalari dike lehorra eraikitzeko. Beraz, hor badugu lehen datu bat. Arbillaga 1919an hil zen eta orduz geroztik Victoriano Celaya ageri da lur horien jabe –Celaya Arbillagaren alabarekin ezkondu zen–. Aurkitu dugun garaiko plano batean jasota dago lursail horretan zegoen dike lehorra.



Ontziolak 1918tik 1920ra egin zuen lan, eta erretratu-ko *Nati* izeneko itsasontzia 1919an egin zuten. 300 tona eta 30 metro luze, *pailebot* motako belaontzi ederra zen. Bada, 1921eko martxoan su hartu zuen Malagako portuan zegoela. Gasolina eta petrolio upelez beteta zegoen Santanderrerako bidaia egiteko prest, baina leherketa baten ondorioz erabat suntsitu zen. Patroiak, eskifaiako hiru marinelek eta zortzi su-hiltzailek erredura larriak pairatu zituzten”.

### Sentsibilizazio falta

“Ajuria, Yeregi y Cía. ontziolaren arrastoeekin gertatutakoak agerian utzi du industria-ondarearekiko sentsibilizazio falta. Kantauri plazako etxebizitzak egin zituen enpresa eraikitzailearen axolagabekeria, herriko agintari edo Hirigintzako teknikarien arduragabekeria edo, agian, baita ere, bizilagunen kontzientziazio ezagatik suntsitu izan zituzten, besterik gabe, arrasto haiek. Zeren eta, jakin dugunez, kokagune horretan agerian geratu ziren dikearen arrastoak, horma bat uztai pare batekin, eta ibairantz zihoan dikearen hondoa, eta dakigunez, behintzat, ez ziren dokumentatu dena suntsitu aurretik, gutxienez, argazki batzuk eta txosten bat eginez. Tamalgarría, benetan!”.

### ► GERTAERAK

*Ikusmin handia sortu zuen Ramontxu ontziaren botadurak, ordura arte Zumaian eginiko ontzirik handiena baitzen –alboko irudian–. Behean, Tauro itsasontzia Santiagoko hondartzan hondoa jota. Idien laguntzarekin atera zuten zeraman karga.*



### ► NATI ITSASONTZIA

*Eskuinean, goian, Nati-ren botaduraren erretratua. Azpian, dike lehorra ageri den plano. Alboko irudian, Nati-ren leherketaren ondorengo irudiak.*

## ► AZPIEGITURAK

*Herrigunetik Zubiaundiraren alborra pasa zen Balenciaga 1940ko hamarkadan. Lehen pabiloi estalia eraikitzen ari zirenekoa da ezkerreko argazkia.*



egiteko mailak –bat estalia eta bestea estalperik gabea– handitu, luzetarako ontzitegi bat (bide eta guztikoa) eraiki eta makineriarako eta zerbitzuetarako behar ziren guztiak egin. Bigarren eskaera horren aurka azaldu zen, ordea, Zuloaga pintorea, eta gatazka horrek geldiarazi egin zuen ontziolaren hedapena hamaika urtean.

Auzia, azkenean, ontziolak irabazi zuen eta instalazioak handitu egin zituen. 1952an, gainera, are gehiago handitzen jarraitu zuen, eta baimena lortu zuen ontziolako mailaren zati bat estaliko zuen pabiloi bat eta biltegi bat eraikitzeko. Pixkanaka instalazioak handituta, hasierako bi ontzitegiak sei bihurtu ziren, eta horrek argi erakusten du zenbateko garrantzia hartu zuten itsasontziak konpontzeko lanek.

Lehen zaku fabrika izan zen lekuan tailer mekanikoak, bulegoak eta biltegiak geratu ziren, eta beste instalazioak lekuz aldatu zituzten. Tokialdatzeko arrazoi nagusietako bat Udalaren erabaki bat izan zen; izan ere, auzokoak kexatu egin ziren

errematxatzeko lanen zaratarengatik eta arazo hori konpondu nahi izan zuen Udalak. Nolanahi ere, Zumaiako herriguneko instalazioetan lanean jarraitu zuten, eta txapazko gabarrak egin eta uretaratu zituzten 1969 arte bai, behintzat.

Esan liteke 1950eko hamarkadatik aurrera Balenciagak utzi egin zuela makinagintza eta galdaragintza eta batez ere ontzigintzan aritu zela.

### Sektoreko enpresa liderra Gipuzkoan

Merkataritza Flota Babesteko eta Berritzeko Legea” atera zen 1956an, neurri protekzionista erabat. Lege hori onuragarria izan zen sektorerako eta izugarri handitu zuen ekoizpena. Halaber, indartu egin zen industria osagarria, eta sektore horretan bereziki nabarmentzekoak dira itsasorako motor dieselak, besteak beste Yeregui anaiek eta Carmelo Unanuek eginak (geroago etorriko zen Guascor). Lehen aldiz, altzairuzko itsasontzien produkzioa (Balenciagarena) egurrezko itsasontzien produkzioaren parera iritsi zen.

1960an, Balenciagak lan handi batzuk gauzatu zituen: dike lehor bat, bulegoetarako pabiloiak, galibo gela, zuakerrak muntatzeko eta forjatzeko tailerra... Horri esker, oso itsasontzi handiak eraiki ahal izan zituen, urte batzuk lehenago pentsaezinak zirenak. Garapeneko aldi hau 1973 arte luzatu zen. Balenciagaren merkatu nagusia Kantauri itsasoko ertza zen, baina Katalunia eta Andaluziara ere iritsi zen. 1963tik aurrera, sektoreko enpresa liderretako bat bihurtu zen Gipuzkoan.

Garai hartan, hain zuzen ere, Pasaiako Lasa Hermanos S.A. eta Industrias Guria S.Coop. enpresek Balenciaga kontratatu zuten itsasontzien kroskoak egiteko. Bi konpainiek itsasontzi osoak saltzen zituzten, baina ez zeukaten beraien ontziolarik. Arrantza ontzien flota berritzen ari zen orduan-txe, eta Balenciagak ospe ona irabazia zeukan armadoreen





artean. Kontratu horri esker, Balenciagak denboraldi batean arrantza ontzien lauzpabost altzairuzko krosko egin zituen urteko, eta egindakoan Pasaia eramaten zituzten, Lasa Hermanosen edo Industrias Gurian osorik muntatzeko. Zumaiaitik Pasaia aldera irten zen lehen kroskoa *Ciudad de San Sebastián* ontziarena izan zen, 1964an; itsasontzi hori Industrias Gurian muntatu eta amaitu zuten eta itsasontziak lanean jardun zuten 2009ra arte.

1970eko hamarkadatik, Balenciaga zamaontzi handiak egiten hasi zen Uralar eta Sota ontzi enpresentzat, Ondarroako Talleres Layerekin eta Industrias Guriarekin elkarlanean. Itsasontziak eraikitzearekin batera, konpondu ere egiten zituzten.

### Berritu edo akabo

Petrolioaren krisialdiak gogor jo zuten ontzigintza 1973-1975. urteetan. Krisialdi horrek jarraitu egin zuen 1980ko hamarkadan ere, eta sektorean birmoldaketa handia ekarri zuen. Arrantza sektoreko enpresa enblematiko batzuk desagertu egin ziren; horrela, Pasaia Lasa Hermanosek porrot egin zuen eta Industrias Guriak bertan behera utzi zuen bere jarduera.

Horren aurrean, 1986an, Balenciagak erabaki zuen itsasontziak oso-osorik egitea. Orduan sortu zen Montajes Navales del Urola eta informatika sartu zen itsasontziak diseinatzeko eta ekoizteko prozesuetan. 1986 hartan bertan *Monte Txalintxo* arrantza ontzia entregatu zen, eta haren atzetik etorri ziren *Ortzadar* eta beste asko.

Arrantza sektorea gainbehera zihoala eta, beste merkatu alternatibo batzuen bila hasi ziren eta 1991n bi itsasontzi egiteko lana lortu zuten Erresuma Batuko British Petroleum konpainiarentzat. Lan hori egiteko erabakigarria izan zen ordura arte arrantza ontzi konplexuak (atunontzi izoz-

taile handiak) egiten hartutako eskarmentua. Eskatera hark petrolio plataformetako merkaturako atea zabaldu zizkion Balenciagari.

1991n instalazioak modernizatzeko plan handinahi bati ekin zioten, konturatu baitziren teknologia berrietara egokitu beharra zeukatela merkatuan jarraituko bazuten. Baina prozesu hori eten egin zen 1995ean, ordainketa etendura etorri baitzen; izan ere, diru galea handiak izan ziren 1992, 1993 eta 1994. urteetan, eta bezero marrokoar batek kiebra egin zuelako ordaindu gabe utzi zituen arrantza ontzi izoztaile bat eta krosko bat. Behin ordainketa etenaldia gaindituta, instalazioak handitzen eta egitura aldaketak egiten jarraitu zuten.

Orduan erabaki zuten itsasontziak ez konpontzea, eta 2002. urtean irten zen Astilleros Balenciagako mailetatik azken arrantza ontzia. Atoiontzia eraikitzen jarraitu zuten, baina garbi zegoen ontziolaren etorkizuna petrolio plataformei laguntzeko itsasontziak egitean zegoela.

### Offshore petrolio plataformei laguntza

British Petroleumentzat egindako *offshore* itsasontzien hobian izandako lehen esperientziaren ondoren, 1999an *Midnight Arrow* eraiki zuten, oso itsasontzi konplexua. Haren atzetik beste hiru etorri ziren, antzekoak, urpekariei laguntzeko eta tripulaziorik gabeko itsaspeko ibilgailuak kontrolatzeko, ADAMS talde ingeles-saudiarentzat eginak; horiei guztiei esker sendotu egin zen Balenciaga merkatu zorrotz honetan.

2003an Balenciagak *Gramplan Surveyor* itsasontzia eman zien Aberdeeneko North Star Shipping eskoziarrei, CRAIG taldeko filialari. Hura izan zen hemeretzi itsasontziko zerrenda batean lehena, eta 2012an amaituko da azken laurak emateko epea. Gainera, oso elkarlan ona ezarri da ADNOCekin, Abu Dhabiko armadore estatalarekin. Lehen itsasontzia 2008an eman zuten, eta gaur egun 4 atoiontziren eskaera betetzen ari dira, Pertsiar Golkoan hidrokarburoen terminalerara kargatzera joaten dien itsasontzi handiei laguntzekoak.

Eraldaketa prozesu handia izan da, hasieran itsasontzien kroskoak baino egiten ez zituen ontziola hartatik konplexu-

1963tik  
aurrera  
sektoreko  
liderretako  
bat bihurtu  
zen



▲ LAU IRUDI Gabarra baten botadura moilan; Balenciagaren aireko ikuspegi bat; arrantzontziak konpontzen; eta Sota Begoñaren itsasoratzea.

## ZIIZen hurrengo urratsak

Zumaiako industria ondarearen gaineko ikerketa mardula ari da burutzen ZIIZ taldea. Bildutako informazioa antolatu eta zumaiarrei eskaintzea da beraien helburua, eta jadanik hainbat urrats egin dituzte. Maiatzaren 27an, esate baterako, ontzigintzari buruzko hitzaldia eskaini zuen Pedro Etxabek, eta bertara bildu ziren herritarren artean banatu zen Balenciaga S.A.ren 90 urteko ibilbidea jasotzen duen argitalpena. Astilleros Balenciagak, ZIIZek eta Baleike Kultur Elkarteak elkarlanean egindako lana da, eta hango edukiak erabili dira, hain zuzen ere, hemen aurkeztutako erreportajea osatzeko.

Gogoratzekoa da, baita ere, aurretik zementu fabrikei buruz eta makina-erramientaren inguruan hitzaldi bana eman zuela ZIIZek, eta udazken alderako motorgintzari buruzkoa ari direla prestatzen.

Hitzaldiekin batera, webgune bat ere ari dira prestatzen, bildu duten informazio guztia txukun-txukun antolatu eta herritar orok kontsultatzeko aukera izan dezan. “Aztertu ditugun enpresa guztien fitxak ari gara osatzen,



argazkiekin, dokumentuekin edota mapekin lagunduta”. Eta beste ideia bat ere badute buruan: “Gustatuko litzai-guke herrian zehar panelak jartzea, Zumaian izan dugun industriari buruzko oinarrizko informazioa erakusteko”.

Azkenik, biltzen ari diren informazio guztiarentzat erakusketa gune iraunkor bat nahiko lukete, eta argi dute zein den lekurik egokiena: “Beheko estazioa, lehengo anbulategiaren eraikina. Uste dugu eraikin hori oso esanguratsua izan dela Zumaiako historian, herriak berreskuratu behar lukeela, eta ekimen honentzat ezin aproposagoa dela”.





## ◀ MUGARRIA

*Midnight Arrow, petrolio plataformetarako eginiko lehen ontzi konplexua.*

## ▼ URPEKARIAK

*Ontzi hauek oso konplexuak dira. Besteak beste, kamera hiperbarikoak dituzte urpekarientzat.*



tasun teknologiko handiko itsasontzi osoak egiten dituen era, eta hori gertatzeko ezinbestekoa izan da antolara aldatzea; enpresa informatizatzea; ekoizteko baliabideak modernizatzea; eta inbertsio handiak egitea tailer estalietan, txapa, profilak eta hodiak mozteko eta okertzeko makineria automatizatu, igotzeko elementuetan (garabia, karro ontzitegia...).

### Etorkizunari begirako kezkak

Mundu mailako krisi sakonak eragin zuzena izan du ontzizintzan ere. Aurrera begirako kontratu bila dabilta egunotan Balenciaga ontzizintzan. Oraingoan ere zailtasunak gaudituko dituztelakoan daude, baina ba omen dituzte gaudituko beharrek bi oztopo, Vicente Galdeano enpresako gerenteak azaldu duenez. “Alde batetik, erria dragatzeko premia. Eusko Jaur-laritzaren ardura da portuak zaintzea eta dragatze lanak egitea, baina ez ditu egin nahi. Ibaian gora landaretza asko galdu da azken urteotan eta euria egiten duenean ibaiak lur asko ekartzen du. Bestetik, barra berriekin, itsasoak ez du lehen zuen gaitasuna erria hondoa garbitzeko. Jadanik hirugarren uharte bat ari da sortzen Bedua aldean. Botadura bat daukagunean geuk dragatu behar izaten dugu, eta 200.000 euroko kostua du. Beste arazoa da azpiegiturak zabaltzeko premia daukagula baina lekuri gabe gelditu gara. Hori Udalak konpon dezake plan partziala aldatuta. Azken sei urteotan, batez beste, urtero bi milioi euroko inbertsioak egin ditugu azpiegiturak hobetzeko. Baina metro gehiago behar ditugu etorkizuneko erronkei aurre egiteko. Udalaren kolaborazioa behar dugu hori konpontzeko”. ■

## Teknologia aurreratueneko itsasontziak

Itsas zabalean petrolio plataformei *–offshore–* laguntzeko Balenciaga S.A.k eraikitzen dituen itsasontziak teknologia aurreratuena aplikatzen dute ontzizintzaren sektorean. Itsasontziak lan mota ugari egiteko diseinatu daude, besteak beste, hauek: plataformek funtzionatzeko beharrezkoak dituzten produktu likidoak eta hainbat material hornitzeko lanak (*supply* itsasontziak); batiskafo tripulatuak edo itsasontzitik bertatik gidatutako itsaspekoak (ROV) erabiltzea itsaspeko hodian sarea ikuskatzeko edo itsas hondoa kableak eta hodiak jartzen edo konpontzen laguntzeko, eta, gainera, plataformak ikuskatzeko, konpontzeko eta mantentzeko lanak egiteko (DSV ROV itsasontziak); benetako “Ur gaineko anbulantzia” balitz bezala aritzeko, plataformen ondoan jartzeko suterik, leherketarik edo bestelako larrialdirik izanez gero, zaurituak eta itsasoan galdutakoak jasotzeko eta atentzio medikoa emateko portura iritsi bitartean (*Stand-by/Rescue* itsasontziak).

Erabilera anitzeko itsasontzi horietatik, nabarmentzeko modukoak dira, besteak beste, *Grampian Surveyor*, *Adams Challenge* edo *Grampian Talisker*, eta guztiek daukate posizionamendu dinamikorako DPS2 sistema, ezarritako lekuan egonazteko hondoko aingurarik gabe, baita eguraldirik eta itsasorik okerrenetan ere. Horretarako, sistema horrek GPSa hartzen du erreferentziatzat, eta horretatik jasotako informazioaren arabera lan egiten dute propulstzaile diesel-elektrokoek.

**MAITE**  
ILEAPAINDEGIA



Amaiako plaza, 2 tel. 943 143 278

**Maluta**  
Jatetxea • taberna



oilasko erreak • kaxuelitak • ogitartekoak  
Izaga, 2 Tel. 943 860 224

CROISSANTERIA



pizzak  
hanburbesak  
bokatak...

**marina**

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943 86 22 46

**Maxi**  
solarium

ileapaindegia  
estetika

etxezarreta, 9 tel. 943 861 021 lasonet.com/maxi

**MENDI - ONDO C.B.**  
Elektrizitatea



Urola plaza, 21 tel. 943 860 074 - 943 861 569

**METRO**  
taberna



ogitartekoak  
pintxoak

Upela plaza, 7  
tel: 943 537 901

**"Muagi"**

errehabilitazioa  
kirol medikuntza  
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea tel. 943 861 691

✓ Eguneko menua.  
✓ Asteburuetan txotx,  
sagardotegiko giroan.



Muniosoro, 54  
OIKIA  
tel.: 943147891

**muniosoro**  
Taberna - Jatexea

**Nikol Enea**



TABERNA

Amaiako plaza

ETXEGINTZA  
**OLIDEN**  
CONSTRUCCIONES Y REFORMAS, S.L.

Era guztietako berrikuntza eta igeltserotza lanak:  
**FATXADAK ETA TEILATUAK**  
Sukaldeak, bainugelak...

Tel. 647 040 156 / 686 911 257

**NOIA S.L.**  
TAILERRAK ETA  
KARROZERIAK



Etengabeko garabi zerbitzua

636 887 812 (Zumaiá)  
609 834 438 (Itziar-Deba)

Hego kalea, B3 (Estazioan)  
20750 - Zumaiá  
Tel.: 943 861 363  
zumaiá@carroceriasnoia.com

Itziar industrigunea, C  
20820 - Itziar-Deba  
Tel.: 943 606 291  
noia@carroceriasnoia.com

www.carroceriasnoia.com

**OSA**  
BERNIZATUAK

Zoruen kutzilaketa eta bernizaketa  
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 tel. 943 861 412 - 686 364 149

**OSKARBI**  
KIROLAK



Alai Auzategia, 14 • Arrantz, 1 Tel. 943 143 112  
oskarbikirolak@euskalnet.net

**OSTOLAZA**



OSTOLAZA ZUMAIÁ, S.L.

Joxe Mari Korta Industriegunea, A1 - 4, pab. 20750 Zumaiá (Gipuzkoa)  
Tel. 943 86 50 68 • Faxa 943 86 13 45  
www.ostolaza.com • e-mail: ostolo@ostolaza.com

**Ostolaza**  
Altzariak

Julio Beobide Ibitokia, 1  
20750 ZUMAIÁ (Gipuzkoa)  
mueblesostolaza@euskalnet.net

Tel./Faxa: 943 86 13 25





Iñaki Agirrezabalaga  
Bildu



Azis Alberdi  
Bildu



Maitane Agirre  
Bildu



Iñaki Ostolaza  
Bildu



Arritxu Gonzalez  
Bildu



Eneko Agirre  
Bildu



Montse Arana  
EAJ-PNV



Edurne Egaña  
EAJ-PNV



Juan Carlos Cendoya  
EAJ-PNV



Ana Arranz  
EAJ-PNV



Isidro Fernandez  
EAJ-PNV



Emiliano Cabañas  
PSE-EE



Aitor Leizaola  
ARALAR



## Udal Hauteskundeak

Hauteskunderen jarraipen berezia egin du aurten Baleikek. Mahai-ingurua ere antolatu genuen hautagaiekin. Internet bidez zuzenean eskaini genuen lehen aldiz. Bideoa webean dago ikusgai.

## Inkestak

### Udal Hauteskundeak 2011

Udalean gehiengo osoa osatzeko, zer konbinazio duzu gogokoena?

**Bildu eta PSE**  
■ 1.98%  
**Bildu eta EAJ**  
■ 10.89%  
**EAJ, PSE eta Aralar**  
■ 12.62%  
**Bildu eta Aralar**  
■ 74.5%

Botoa emandakoen kopurua: 404

Atzera

## Emaitzak

Bildu	2.057	%43,19	6
EAJ-PNV	1.480	%31,07	5
PSE	512	%10,75	1
Aralar	335	%7,03	1
H1!	155	%3,25	0
PP	144	%3,02	0



## Oikiako ikasleak Almerian

Eskola ibiltaria programan parte hartzeko aukera izan dute aurten Oikiako eskolako seigarren mailako ikasleek. Altzoko, Navalcarnero (Madril) eta Murziako ikasleekin elkartu dira eta, besteak beste, Ejidoko baratzak, Tabernasko basamortua, Yesoko kobazuloak eta Almeria hiriburuko bazterrak ezagutzeko aukera izan dute.



**OTEZURI**  
KAFETEGIA

Gosariak  
Ogia  
Egunkariak

Sagarbidea, 4 Tel. 943 143 401

*La*  
**Prima Vera**  
pizzeria



Alta Mari, 17, behea  
tel. 943 247 011

**Rosi** Garbiketak

Etxeak eta dendak  
Enpresa eta auzo lanak  
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943 016 353



**RUBIO**  
Pinturak

PINTURAK,  
ARTE EDERRAK,  
ALFONBRAK,  
DROGERIA,  
PINTATURIKO PAPERA,  
ESKULANAK...

943 861 335 • 656 779 788  
Erribera 1 behea

*Talajaia*  
taberna • jatetxea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943 143 370

**TALAI-PE**  
jatekxeta-erretegia



Arrainak, mariskoak eta txuletak parrillan  
Julio Beobide ibiltokia Tel. 943861392

*Tapaia*  
Taberna



Erribera kalea  
20750 ZUMAILA (Gipuzkoa)  
tel. 943 861 973

**TXIMISTA**  
garagardotegia

Ogitartekook  
Plater konbinatuak  
Txerri-ukondok (hodilloa)  
Saltxitzak, oilaskok...  
Garagardok aukeran

Ondartza plaza, 4 behea Tel. 943 573 905



**Txingurri**  
Loradenda

Loradenda Lorazaintza  
erribera, 1 tel. 943 860 778  
tel. 943 861 180 655 703 343

Nekazaritza Injineru Teknikoak

**Urola 2000, s.l.**  
Aroztegia

\*Eraikitzen akabera eta dekorazioa  
\*Baserrien zaharberritzea  
\*Enbarkazio konponketak  
\*Alo, zokalo, tarima eta pertsiarik  
\*Armarri enpokatuen aurrealdea  
\*Aroztegi metalikoa

Trenbide pasealekua, 1 tel. 943 143 505 - 619 424 323

**UZKUDUN** taberna-jatetxea



Gosariak-Pintxoak-Kaxuelitak-Eguneko menua-Astebaruko menua-Merendak-Plater konbinatuak-Errozkoak-Afariak

Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 Tel. 943 865 349



**Xanti**

Xanti Osa  
Arantxa Azkue

Amalako plaza, 13  
tel. 943 860 914  
657 794 153  
Denda: tel./faxa 943 862 385

**Zalla**



• plater konbinatuak  
• ogitartekoak  
• oilasko erreak

Urtza Plaza 3 • 943 86 23 87 ZUMAILA

**zapateixa**  
Konponketak



Maitasun Ukananga

Oinetako eta erropa konponketak

Produktu eta material ekologikoa

Zunbilo kalea 8 • 20750 Zumaila • 943 861 252 • 652 727 740

**Zumaila Hotela**  
Jatetxea  
Kafetegia



Alai suztegia, 20750 Zumaila tel. 943 143 441 faxa 943 865 161



**Zerbitzu Ofiziala**

**ZUMAILA MOTOR**

Santiago auzoa, 22  
tel. 943 143 143 faxa: 943 865 161

**ZUMAILA** STOP

PRACTICAS AUTO-ESKOLA

- Gidabaimen guztiak ateratzeko baimendua
- Praktika eta azterketak Azpeltian
- GURE HELBURUA:  
Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 - behea • tel. 943 86 10 18 • ZUMAILA

**Zumaila optika**



Txomin Agirre kaia, 6 tel./faxa: 943 143 057



# EKAINA-UZTAILA

## ERAKUSKETAK

Maiatzaren 26tik ekainaren 12ra, Alondegiko Oxford aretoan, "PEREGRINATIO".  
Ekainaren 16tik uztailaren 3ra Donostiako Arkitektura Eskolaren ikasturte amaierako lanak.  
Uztailaren 8tik 24ra: Zumaiaiko txuri-beltzeko argazki lehiaketako lan onenak. Gaia: "Garraibideak".  
Lehiaketarako lanak aurkezteko azken eguna: ekainaren 23a.

## DEIALDIK

Maiatzaren 30etik ekainaren 5era SLOW ZUMAIJA Gastronomia eta Natura Iraunkorraren II. jardunaldiak.  
KOMENTUKO BISITAK: Ekainaren 4an eta 25ean. 17:30 eta 18:30ean. Izen ematea: Turismo bulegoan. 943 143396.  
Maiatzaren 28tik Ekainaren 5era, ZUMAIJAKO ASTE BERDEA. SENDIAN PROGRAMA FORMAZIOA, mendekotasun pertsonekin bizi diren famili zaintzaileei zuzendutako formazioa. Euskaraz. Ekainaren 6tik 9ra, 15:00-17:00 bitartean. Izen ematea: Gizarte Zerbitzuen Branka bulegoan (943 862200).  
6tik 12ra Beheko Plaza elkarteak Udalaren babesean antolatuta, Pertsona Nagusien Astea.

## EKAINA

**Ostegunetan**  
PINTXO-POTEOA.  
**3, ostirala**  
17:00etan Aita Marin, "MOMO" filma. Aste Berdea.  
18:00etatik-19:30era PINTXO JAIJA Kofradian: Pintxo eta sagardo dastatzea. Zumaiaiko jatebdeen eskutik. Flysch opilen dastatzea. Tartean Jon Urbietarekin musika.  
19:30ean PINTXO LEHIAKETA.  
**4, larunbata**  
11:30ean HAURRENTZAT PINTURA TAILERRA ETA AURPEGIK MARGOTZEA.  
12:00etan Kofradian: Patata tortilla lehiaketa.

18:00etan kofradian, Haur Antzerkia Aste Berdearen barruan: "KLI KLA, BIRZIKLA"  
19:00etan Ondartxo plazan haur jolasak. Bukaeran Txokolate-jana.  
19:30ean, Amaia plaza, THE BILLIE JEANS taldearen saioa.  
**5, igandea**  
10:00etan hasita Algorri Interpretazio Zentroan ate irekiak. Haurrentzat tailerrak eta Irteera geologikoa (943-143100).

## 9, osteguna

21:45ean zine forum saioa "Winter's bone".

## 10, ostirala

19:00etan hasita, LUDOTEKAKO IKASTURTE AMAIERAKO FESTA Beheko plazan  
22:30ean Aita Mari aretoan, AUDIENCE kontzertuan.

## 12, igandea

12:00etan Beheko plazako Gizarte zentroan 89 urte betetzen dituzten pertsonen omenaldia.  
Ekainaren 13tik 17ra Musika Eskolako ikasle eta irakasleen entzunaldiak.

## 14, asteartea

17:30ean Haur liburutegian, Ipuin kontaketa Pello Añorgarekin.

## 18, larunbata

19:00etan komentuan, BEHEKO PLAZA eta SAN PEDRO Abesbatzen kontzertua.

## 21, asteartea

19:00etan Musika Eskolaren ikasturte amaierako jaialdia Maria eta Josen.

## 22, asteazkena

19:30ean Musika Eskolako ikasleen rock kontzertua Kofradian.

21:45ean zine forum saioa: "Exit through the gift shop".

## 23, osteguna

22:00etan Sanjuaniturin, San Juan suak Zumaiaiko Txistulari Bandarekin eta Musika Eskolako euskal dantzariekin.

## 24, ostirala

18:30ean, CAPOEIRA Topaketak.  
22:30ean Itzurun hondartzan "Brasil Rua Live" erakustaldia.

## 25, larunbata

"Artadira iogoera" txirindulari proba,  
11:00etan 16 urte baino gazteagoak



**Ekainak 10, ostirala, Aita Mari aretoan, kontzertua.**

**AUDIENCE**  
AMERIKANUAK

11:30ean 16tik gorakoak.  
**26, igandea**  
Egun osoan zehar, ARTISAU ETA ELIKADURA AZOKA: elikagaiak, artisauek lanean eta haurrentzat tailerrak.  
**28 eta 29an**  
SAN PEDRO JAIK.  
**30, osteguna**  
Egun osoan, Eusebio Gurrutxaga plazan, HAUR PARKE ERRALDOIA.

## UZTAILA

**2, larunbata**  
19:00etan kale antzerkia: ALICIA.  
22:30ean kiroldegian Boxeo Gaua.  
**3, igandea**  
12:00etan Gemika parkean Ardixakurrak.  
**8-9-10**  
NARRONDOKO JAIK.  
**10, igandea**  
10:00etan FLYSCH TRAIL.  
**15, ostirala**  
20:00etan parrokan, Organo Kontzertua: LETIZIA ROMITI.  
**16, larunbata**  
22:30ean Musika bandaren

Udako kontzertua Eusebio Gurrutxaga plazan.

## 17, igandea

20:30ean Itzurunen ENEKO LARRAÑAGA: CORA doinuak.

## 23, larunbata

SURF FESTA Itzurunen.

## 25, astelehena

BIDASOAKO FOLKLORE JAIALDIA Eusebio Gurrutxaga plazan.

## 28, osteguna

TEINK Trofeoaren 2011eko edizioko txalupen iristea.

## 29, ostirala

DANTZA KALEAN: Dantza ikuskizunak herrian zehar.

## 30, larunbata

20:00etan Mariatxien kalejira  
22:30ean Eusebio Gurrutxaga plazan, MARIATXI KONTZERTUA.

## ABUZTUA

## 6, larunbata

BERBENA GAUA.

## 12, ostirala

EUSKAL JAI.

## 20, larunbata

KOADRILA EGUNA.

**Izaskun**  
arroja-denda

Eribera kalea, 3 Tel. eta faxa: 943860098

**KANTAURY TABERNA**

Pintxoak · Plater konbinatuak · Kazolatuak  
Pintxos · Platos combinados · Cazuelitas

Kantaury plaza, bajo 4 - tel. 943 575 840

**TXILLARRE EKO DENDA**

Zure erosketa ekologikoa etxera

Zumaian banaketak, asteazken arratsaldetan  
635 008 496 • 943 742 085  
p.ekologikoak@euskalnet.net • www.txillarre.es



## ENTZUN

—Entzun! —esaten zion ondotik pasatzen zitzaion edonori—. Entzun haizearen ahotsa, entzun zuhaitzen marmarra, entzun zure inguruan. Entzun!

Inguruko hotsei buruz eztabaidan ematen zuen eguna: txorizalearekin txorien kantuz, musikariarekin akordeen esanahiaz, edo parketan zeuden amekin haien haurren negarraren hizkuntzaz. Nonahi geldituko zen entzuten zuena adi-adi jarraitzera. Berdin zitzaion mendi-puntan egon, ala kale bazterrean. Soinua zen beretzat garrantzia zuen bakarra.

—Zorionekoa zu —esan zion behin itsasgizon bati—, itsasoaren soinuak egunero gozatzen dituzula.

—Itsasoan isiltasuna baino ez dago! —harritu zitzaion

hura—. Nor du gogoko horrelakorik? Nik nahiago dut kaleko zarata, hemen bizitza dago.

—Ez! Itsasoak mila ahots ditu: olatuen orroa, kaioen hizketaldiak, arrainen zipriztinak... entzuten jakin behar dira.

—Egunero entzuten ditut nik —erantzun zion itsasgizonak—, baina nahiago dut kalean entzuten den giroa.

—Entzun! —oihukatu zion besteak zebra-bidearen erdian geldituz—. Trafikoaren zarata baino ez da entzuten hemen.

Gainetik pasa zitzaion kamioiaren orroa izan zen entzun zuen azkena.





**BATELA**  
**ARRANDEGIA**  
Izustarri, 2-4  
Tel. 943 860 750

*Aukera zabala bertako  
arrain freskoan*



ondo pasatu  
**SANPEDROAKI!**







# Slow Zumaiia

Gastronomia eta natura iraunkorreko II. jardunaldiak



— ZUMAIA - EKAINAK 2, 3 ETA 4 —

Babesleak:



**Ekainak 1etik  
uztailaren  
15era**

**Zumaiia  
elkartea  
txartela  
erabiltzeagatik...**

**2,5 euroko**  
kontsumoa taberna  
eta kafetegietan



Zumaiako Udala



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO  
REGLAMENTO REGULACION  
APLICACION DE LA LEY 1/1984  
DE 26 DE JUNIO DE 1984  
DE 1984



Saria datafonotik aterako da